



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

PRESOEN SENIDEENDAKO GARRAIO-LAGUNTZA BANAKAKOEN ARAUBIDEA (NAO 37 zbk, 2002ko martxoak 25, eta NAO 43 zbk, 2008ko apirilak 4)

Altsasuko Udalak, bere Gizarte Ongizate batzordearen bitartez, edozer arrazoia dela-eta presondegian aurkitzen diren pertsonen senideek eginiko laguntza eskaerak aintzat harturik, ondoko ordenantza hau onetsi du:

ORDENANTZA

Kontzeptua: ordenantza honetan azaltzen diren laguntzak Altsasuko Udalak emanen ditu, diru laguntza gisa, preso senideei horiek bisitatzera joateko bidaiek ekartzen dizkien gastuen zati bat ordaintzeko eta, horrela, zigorra betetzen aurkitzen diren presondegietara joan ahal izateko.

Onuradunak.-Laguntzak ondoko hauek jaso ahalko dituzte:

- Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako mugetatik kanpoko presondegietan dauden preso senideek.
- Preso bakoitzaren senide bakar batek jaso ahalko ditu laguntza horiek.
- Ezinbesteko baldintza gisa ezartzen da hala senide onuradunak nola presoak Altsasun erroldaturik egon beharko dutela gutxienez laguntzak eskatu eta hiru urte lehenagotik.
- Hala ere, Altsasuko Udalaren Gizarte Ongizate batzordeak ahalmena izanen du gerta daitezkeen kasu bereziak aztertu eta horiei buruzko erabakiak hartzeko.

Laguntza eskaerekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskabide orria, preso onuradunaren senideak Altsasuko Udalaren Gizarte Ongizate batzordeari zuzendua.
- Eskatzailearen nortasun agiriaren kopia.
- Errenta (PFEZ) aitoren kopia, laguntzen onuradunaren famili unitatearena.

Diru laguntza zehazteko baremoa:

- Oro har, laguntza eskatzaile guztiei hilean joan-etorriko bidaia bat diruz lagunduko zaie, Altsasu eta espexaren arteko ibilbideko kilometro bakoitzeko 0,09 euro ordainduz.
- Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren % 100 eta % 125 arteko errenta duten famili unitateei beste bidaia bat gehiago diruz lagunduko zaie hilean, ibilbideko kilometro bakoitzeko 0,09 euro ordainduz.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

-Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren % 100 baino errenta txikiago duten famili unitateei beste bi bidaiari gehiago diruz lagunduko zaizkie hilean, ibilbideko kilometro bakoitzeko 0,09 euro ordainduz.

500 kilometro edo gehiagoko joaneko ibilbidea duten bidaiendako diru laguntza kilometro bakoitzeko 0,12 pezetakoa izanen da.

Garraio pribatuaz bidaiatuz gero, trenez izan edo autobusez izan, txartelaren kostuaren ehuneko 25 ordainduko zaie, eta txartelaren bidez egiaztatu beharko dute.

Honako hau izanen da eman beharreko laguntza kalkulatzeko modua: famili unitatearen kide guztien PFEZren aitortpenaren errenten batura zati famili unitatearen kide kopurua.

Ez dira famili unitatearen kideetat hartuko PFEZren aitortpena bereiz egiten duten seme-alabak.

Laguntzak ordaintzea:

Laguntzak emateko jakinarazpena ebatzi ondoren, laguntza ordainduko da, eginiko gastuaren eta espetxe-arduradunak emaniko bisitaren egiaztatutakoan.

Xedapen gehigarria:

Araubide honetan ezarritako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, aurreko urteko Nafarroako KPIren arabera.